

Barojaren euskalzaletasuna (eta 3)

Deia, 1983-09-13.

Hara gai honetaz *Eloy L. Placer* jaunak egin zuen azterketa zehaztearen ondorioak:

Esan genezake, Zestoan esnatu zela Barojaren euskal konzientzia; egileak dioneez, 1922rako, *Momentum catastrofichum*, eta *Leyenda de Jaun de Alzate* idatzi eta gero, Itzeako gizonak ez zuen sentitzen zuena bakarrik esaten, *bazekien baitere zer sentitzen zuen*.

Zer da *Euskalerrria* Barojarentzat?

Zazpi eskualde ditu: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi, Behenafarroa eta Zuberoa.

Avinareta eta karlistadetako gizonekin Euskalerrri osoa oinkatzen du: *La casa de Aitzkorri* Zestoan dago; *Zalacain el aventurero*, Donibane Garazi inguruan; *El mayorazgo de Labraz*, Laguardian; *La sensualidad pervertida*, Iruñean gertatzen da; *Las inquietudes de Shanti Andia* Lekeition sortzen dira; *El Capitán Chimista*, Mutrikuko jatorrikoa da; *Las figuras de cera*, Baionan gordetzen dira; *Los caudillos de 1830*, Ustaritzen dituzte batzarrak; *La veleta de Gastizar*, Askainen irrinkatzen du, azkenik; *El caballero de Erlaiz*, Irun inguruan jaioa da; *La dama de Urtubi*, berriz, Zugarramurditik hurbil bizi da; *El cura de Mouleonek* Gasteizen ikasten du, Arrasaten da apaiz lehen eta gero Arabako herrixka batetan.

Barojak batez ere mendia, kostaldea eta itsasoa maite ditu.

Euskalerrriko gizona, hitz gutxikoa da Barojarentzat, ekintza du maite; berez maite du abentura, eta bide batez sentimental da; ondo bizitzea ere gustatzen zaio, eta maltzur izaten ere badaki. Honetaz gainera, ez du zentzu historikorik, ez dio gertatzen denari garrantziarik ematen. Bestalde, hiri handirik izan ez duenez zientzia, literatura eta artearen sorleku eta zabalkunderako bideak falta izan zaizkio, eta kanpora irten denean bakarrik erakutsi du gaitasun handia. Barojak sentitzen du Euskalerrrian berezko kultura sortzeko indar gordea, baina ez dio euskarari honetarako gaitasunik ikusten.

Halaxe ikusten du eta halaxe esan; geuk, ekintza bidez, erakutsi behar diogu oker zegoela.

Horiek dira Pio Barojaren asmo nagusiak.

Izandu du gure herrian kontrakorik!; pentsatzen zuena esaten zuelako, erlijioaren saihetsetik gehien bat; eta geuk ez genion honetan lagundu, aitzitik, gure alde txarra erakutsi baino. Berara bizitzera etorri zenean, liburuxka bat zabaldu zuten herri guztian; Leon de Guevara apaizak idatzi zuen eta hala zion idazleari zegokion zatia: "Baroja, Pio: clerófobo, deshonesto...".